

**JUAN JOSE MOGEL IDAZLEAREN II.  
MENDEURRENA (1781-1981)**



## **JUAN JOSE MOGEL IDAZLEAREN II. MENDEURRENA (1781-1981)**

*Deba, 1981-IV-26*

*Aita Jose Ignacio Lasa*

### **DATOS BIOGRAFICOS ACERCA DE DON JUAN JOSE MOGUEL ELGUEAZABAL (1781-1849) Y DE SUS ANTEPASADOS**

Con ocasión de celebrarse hoy el bicentenario del nacimiento del insigne hijo de esta villa de Deva el célebre orador sagrado y escritor euskérico el presbítero DON JUAN JOSE MIGUEL Y ELGUEAZABAL, se me ha encomendado os hable acerca de esta gran figura, y se me ha indicado me ciña al aspecto biográfico. Como se trata de un sujeto perteneciente a una familia que procede de la Rioja castellana nos veremos también obligados a ofrecer varios detalles e informaciones relativas a los primeros antepasados de Don Juan José que se afincaron en nuestro País. Advertimos a nuestros oyentes que prescindiremos en general de los informes y datos que se encuentran en los historiadores que han estudiado la figura de Juan José Moguel, y aduciremos solamente aquellos datos o informes que pueden ofrecer algún interés o novedad por ser todavía desconocidos a nuestro entender. Confesamos llanamente que por la escasez del tiempo de que hemos podido disponer para preparar nuestro trabajo se hallarán en él lagunas por las que pedimos desde ahora humildes excusas.

El apellido Moguel no es de origen vasco sino que procede de la Rioja. El primer Moguel que vino a Euskalerría fue Domingo Moguel, nacido en Ruesca, cerca de Calatayud, cuyo padre Andrés Moguel era natural de Alfarro. Domingo Moguel vino a Marquina por haber sido nombrado médico de esta villa. Por esto Marquina se convirtió como en solar de los Moguel. El hijo de Domingo fue Juan Ignacio Moguel, quien se había casado en Jemein (o Xemein) con Dña. Grabiela Urquizar. Los hijos de este matrimonio fueron tres, a saber, Juan Ignacio Moguel, médico, Juan Antonio Moguel, sacerdote y autor de la célebre obra vasca *Peru Abarca*, y Manuela Vicenta Moguel. Según un documento que hemos hallado en el Archivo Protocolar de la Universidad de Oñate, Manuela Vicenta otorgó la escritura de capitulaciones prematrimoniales con don Francisco Sales de Gutiérrez el 30 de octubre de 1779.

Nuestro Juan José Moguel y Elgueazabal fue hijo del médico Juan Ignacio Moguel y de su mujer María Petronila Elgueazabal. Tuvo una hermana que se llamó Vicenta Antonia Moguel, muy conocida como fabulista vasca. Juan José Moguel nació en Deva el 26 de abril de 1781, es decir, hace hoy precisamente 200 años (1). Consta que nació en Deva por la Partida de su nacimiento. Esta Partida fue publicada por Juan San Martín en el Boletín de los Amigos del País, año 1963, t. XIX, Cuaderno 30. Como veremos más adelante, el padre de Juan José era a la sazón médico de Deva, a donde había llegado procedente de Eibar: a Eibar había venido de Salvatierra el año 1745. La escritura de conducción para médico de Deva fue otorgada el 30 de setiembre de 1776, y renovada el 16 de julio de 1779 hasta el año de 1785 ante el escribano Luis de Egaña.

Hemos leído en un escrito que resulta extraño que se puedan compaginar estas escrituras de conducción con el hecho de que Vicenta Moguel la fabulista naciera en Azcoitia el 6 de setiembre de 1782. De hecho resultaría extraño si concediésemos que Juan Ignacio Moguel cumplió su promesa de ser médico titular de Deva hasta el año 1785. Pero no fue así, pues el día 10 de julio de 1779 (Protocolos 1174, fol. 12) se comprometía en Azcoitia a ejercer la medicina durante nueve años. Y ¡cosa rara! el 20 de mayo de 1781 (Prot. 1174, fol. 32) se comprometía también para nueve años. Parece claro que en virtud de la primera escritura no se trasladó de Deva a Azcoitia, pero sí en virtud de la segunda ya que no aparece en Deva después de 1781 y sí en Azcoitia, donde muere el año 1783 y es sustituido por Don Francisco Antonio Zubeldía el día 27 de diciembre de 1783. Véase Protocolo 1152, fol. 272.

La familia Moguel debió de ser de condición acomodada. En la escritura de capitulaciones prematrimoniales de Manuel Vicenta Moguel y Urquizar con Don Francisco Sales de Gutiérrez, natural de Milagro (Navarra) se estipula que debe entregar de pronto 2.500 ducados de vellón y otros 1.500 dentro de un año, contado desde el día de la fecha del contrato. Se obligaron “con sus casas y pertenecidos de Zubieta, Etxetxo y el caserío nombrado Iriguregui, sitas y notorias en las anteiglesias de Zamudio, Fruniz y Etxeberria del muy noble y muy leal Señorío de Vizcaya”. Para vuestra ilustración os voy a dar la siguiente indicación acerca del valor del ducado de vellón: se decía entre nuestros abuelos que doscientos ducados o “berreun dukata” era muy buen casamiento. La posición acomodada de los Moguel descansaba en

---

(1) La hija de Juan Ignacio Moguel, o sea, Vicenta Antonia Moguel Elgueazabal, dedica sus tan conocidas fábulas *Ipui onak* al niño Víctor Munibe Aranguren, nieto de Peñafloída. La dedicatoria es una sincera y cordial exaltación del amor de Peñafloída hacia sus caseros renteros. He aquí las palabras que Vicenta Antonia pone en boca de los caseros: “Ez degu iñor, gure nagusia baño agur gozoagorik egiten digunik! Bere atsegin guzia zan jakitea ondo bizi zirala bere erreterroak, eta gogoan zerabillen, oen izerdiak diru guziak baño geiagora igoten zuela”.

las fincas, propiedades inmuebles, etc., que poseían, como también en los honorarios que cobraban como médicos. Así, en Azcoitia, Juan Ignacio Moguel cobraba 550 ducados anuales por la escritura de conducción, además de la paga por cada visita a los enfermos. (Véase Protocolos del Distrito de Azpeitia, 1152, fol. 272.) Tengo anotadas una larguísima serie de reclamaciones por incumplimiento o retraso en el pago de las rentas a los señores de Moguel. Omitimos las citas de las fuentes para no dar demasiada extensión a nuestro trabajo.

Los hijos varones de la familia Moguel se dedicaron o a la medicina o al sacerdocio. He aquí a continuación la línea genealógica de nuestro biografiado. Su bisabuelo fue Don Domingo Moguel, natural de Ruesca, cerca de Calatayud, quien se estableció de médico en Marquina. Su abuelo fue Don Juan Ignacio Moguel, quien se casó con Gabriela Ignacia Urquizar, y fue médico en Salvatierra y más adelante en Eibar. Su padre fue Juan Ignacio Moguel Urquizar que se casó con Petronila Elgueazabal y fue médico de Deva.

Don Juan Ignacio Moguel Urquizar mantuvo relaciones muy íntimas con la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País. Consta, en efecto, que fue nombrado profesor de la mencionada Real Sociedad el año 1773. Y que colaboró en la sección de medicina con dos trabajos. El primero se intitula "Reflexiones físico-médicas con observaciones prácticas sobre el más seguro método de curar la cruel enfermedad llamada timpanitis". El segundo trabajo son unas conclusiones anatómico-médicas relativas a la seguridad de la inoculación de las viruelas. Véase: Revista Internacional de Estudios Vascos, tomo XXV, pp. 683-684, donde puede leerse el tenor literal de la carta que con fecha de 22 de setiembre de 1773 envía Juan Ignacio Moguel al señor Conde de Peñafiorida (2).

Por la escritura de conducción de 10 de julio de 1779 (Protocolos de Azpeitia, 1174, fol. 12) hecha ante el escribano Francisco Javier de Lerchundi consta que Don Juan Ignacio Moguel fue nombrado médico titular de Azcoitia para nueve años en sustitución de Juan Antonio de Carasa. Este Juan Antonio de Carasa fue uno de los primeros miembros de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País y había realizado los primeros ensayos de inoculación de la viruela en España. No tenemos ningún dato acerca de la fecha precisa de su muerte. Pero por la escritura de conducción otorgada a

---

(2) Este celo por la predicación de la palabra divina explica la gran estima y aprecio en que siempre tuvo Don Juan José Moguel al Colegio de Misioneros Franciscanos de Zarauz, donde se formaron tantos misioneros populares de lengua vasca. Don Juan José entregó para su custodia el manuscrito de la obra maestra de su tío Juan Antonio Moguel y Urquizar intitulada *El Doctor Peru Abarca* al P. Unzueta, misionero y escritor vasco del convento de Zarauz. Juan José Moguel abrigaba la esperanza de que los franciscanos de Zarauz habrían de publicar la obra de su tío tan pronto como se restablecieran las Ordenes Religiosas en el País Vasco. El original de la obra *Pru Abarca*, donado por Moguel al Colegio de Zarauz, se encuentra en el Archivo conventual de Zarauz, en el cajón XIII, *Obras curiosas*, legajo 11.

nombre de don Francisco Antonio Zubeldia en Azcoitia el 27 de diciembre de 1783 consta que hacía poco que había muerto. Véase Protocolos, 1152, fol. 272.

Como hemos dicho más arriba, los hijos varones de la familia Moguel se consagraron o a la medicina o al sacerdocio. Así, Juan Antonio Moguel Urquizar el conocido autor de *Peru Abarca*. Así también nuestro Don Juan José Moguel y Elgueazabal. Los dos siguieron el camino de la carrera sacerdotal.

Por lo que mira a la primera enseñanza de Don Juan José Moguel y a los comienzos de su carrera eclesiástica nada seguro podemos afirmar a base de documentos que hayamos hallado. Según el P. Villasante, hizo los primeros estudios de la carrera eclesiástica con su tío Don Juan Antonio Moguel (Véase Villasante: *Historia de la literatura vasca*, 272, p. 246). Pero por los documentos que hemos podido hallar en el Archivo de la Universidad de Oñate consta que los últimos años de su carrera eclesiástica frecuentó la Universidad de Oñate. En el Archivo de la Real Universidad de Oñate, en la lista de los matriculados en los años 1799-1800 hallamos la siguiente indicación: "Don Juan José de Moguel natural de Marquina, Obispado de Calahorra, casa de Pablo Joaquín de Barrena" (Sec. C, n. 2, Libro núm. 1, Exped. 6). En el mismo Archivo hallamos también la siguiente nota: "Juan José Moguel natural de Marquina, la casa de Vicente Ramírez" (C 2, Libro 10, Exped. 7, 1806-1807).

Con relación a estas dos notas hacemos algunas observaciones. La primera y principal es que aunque las citadas notas dicen que Juan José Moguel es *natural de Marquina*, no se quiere decir que naciera en Marquina, sino que la casa solariega de los Moguel radicaba en Marquina. Como dijimos arriba, su Partida de nacimiento le hace de Deva y su padre era vecino de Deva y médico titular de la misma cuando nació Juan José Moguel. En las dos notas aducidas se habla de "casas". Como la Universidad de Oñate no albergaba a los estudiantes, éstos moraban en casas particulares. La primera casa que apareció citada es la de Pablo Joaquín de Barrena. El día 20 de marzo de 1777 se declaró vacante la cátedra de primeras letras de Oñate. Hubo una convocatoria para ocupar el puesto. Se presentaron cinco opositores, entre ellos Pablo Joaquín de Barrena alegando títulos de sangrador y cirujano. No se le concedió la cátedra. Pero en las Actas del Ayuntamiento de Oñate del 28 de octubre de 1772 consta que se le concedieron los títulos de sangrador y cirujano. Es muy probable que tuviera relaciones con la familia de Moguel por cultivar ambos la medicina.

Lamento que no pueda ofrecer más datos sobre los estudios de Juan José Moguel en la Universidad de Oñate. La razón es que una parte de la documentación de la Universidad de Oñate fue trasladada, al cerrarse ésta, a la Universidad de Valladolid el año 1816 por un decreto del Gobierno de Madrid. Creemos que en estos momentos en que se está tramitando la transferencia de competencias al Gobierno de Euzkadi sería oportuno que nuestras

Autoridades solicitasen una vez más la reintegración de los dichos documentos a la Universidad de Oñate. Esta fue también la petición que hice en la celebración del segundo centenario del nacimiento del conocido escritor y fabulista de Hernani Don Agustín Pascual Iturriaga. El Gobernador de Guipúzcoa, presente en aquel acto, elevó a Madrid al día siguiente la correspondiente instancia, cuya copia me remitió con toda amabilidad. Y aunque en aquella sazón no parece que surgió efecto alguno, creemos que hoy que Euzkadi ha conseguido transferencias en diversos campos puede intentar el traslado de los documentos de la Universidad de Oñate con esperanza de éxito.

Don Juan José Moguel y Elgueazabal debió de ordenarse por los años 1806-1807. Y estuvo unos dos años al frente de la iglesia de San Pedro de Barinaga, aneja a la de Santa María de Jemein, en Marquina. En 1810 obtuvo el Beneficio y Curato de la iglesia de Santa María de Jemein, que conservó hasta su muerte acaecida el 20 de julio de 1849.

No me es posible resumir en pocas palabras las actividades de nuestro recién ordenado sacerdote durante sus 40 años de ejercicio del ministerio sacerdotal. Únicamente nos ceñiremos a los aspectos más fundamentales de su ministerio sacerdotal. Todos ponderan su fervor y celo sacerdotal. Se preocupaba muchísimo de que todos los sacerdotes jóvenes se dedicasen al púlpito, y hasta componía sermones para uso de los sacerdotes jóvenes. Uno de sus biógrafos advierte que por esta razón resulta muy difícil hacer la colección completa de los sermones de Don Juan José Moguel. Se preocupó también muchísimo de la educación de la niñez y de la juventud. A sus ojos los padres —y no los maestros— son los primeros responsables de la formación de la niñez y de la juventud. Dedicó también una buena parte de su actividad a la labor literaria, escribiendo varios libros relativos a la educación y enseñanza religiosa y a diversos ejercicios de piedad. Es mérito especialísimo de Juan José Moguel el haber escrito estas obras en euskera. Y con un estilo que puede servir de modelo. Otros tratarán en esta misma asamblea de ponderar y valorar los méritos literarios de este nuestro gran escritor en euskera.

Otro de los aspectos que podemos destacar en la vida de Juan José Moguel es su intervención en las luchas entre carlistas y liberales, en la primera guerra carlista. El Gobierno carlista le nombró diputado general en el Señorío de Vizcaya, pero al terminar la guerra civil fue desterrado de su parroquia por los liberales “no sin pena de sus feligreses que sabían apreciar las virtudes que a aquél le adornaban”. Tal vez extrañará a alguno que habiendo sido su padre de ideología tan abierta militase el hijo en el campo carlista. La explicación de este hecho nos parece fácil. En primer lugar las funestas consecuencias que siguieron en España a la invasión napoleónica contribuyeron a que muchísimos abriesen sus ojos para ver a dónde conducían las nuevas ideas. En segundo lugar, había perdido a su padre a la edad de tres años, y su educación había quedado bajo el cuidado de su tío, el sacerdote Don Juan Antonio Moguel.





## “AMA” OLERKIA\*

*Deba, 1981-IV-26*

*Tene Mujika*

O, zein mutiltxo polita  
amatxok daukana!...  
Ta nolako lo ederra  
egingo duana!

Ea ba, maitia... txasta!  
seaska epelean...  
Orain estali... ederki!  
Ara ama zure aurrean.

Baina begi argiak  
maite, begitzen nazu!  
Onela... itxi leioa ta  
laister lo egingo zu.

Negar? Ez dezu nai maite  
amatxok gela iluntzerik?  
Orra, ba leioa iriki!  
Joan mamua, emendik!  
Ea, polita, egin lo;  
ama ementxe daukazu,  
Eta zuk lo egin daizun  
berak abestuko dizu:  
“Lo, lo maitetxua, lo, lo!”

Nekez bainan, loak artu du  
nere biotzeko puxka;  
Orain nuan ixil-ixilik  
neure lanak egitera.

---

\*AHORRA: Tene Mujika ezin etorri izan da eta beronen ordez, Amaia Zinkunegi neskak irakurri du hurrengo poesia.

Ai, baiñan... nork utzi berau?  
Nola alde beronengandik?  
Gizaxoa... lo dago ta  
ene! iriparre egiten dit!

Tira! laztan bat emanda  
nuan nere lanetara.  
Ez... obeto det ez eman  
bestela esnatuko da!

Leioa onela itxita...  
nuan, bai, nuan emendik...  
Bañan, ze esnatu bear det  
laztan bat emanagatik!

Poliki-poliki ba p...a!  
Ai! esnatu zu, polita?  
Ez laztana! Egin lo-lo!  
amatxok abestuko ta:  
“Lo, lo maitetxua, lo, lo!”.

## JUAN JOSE MOGEL-EN EUSKAL-LANAK

Deba, 1981-IV-26

Lino Akesolo

Juan Jose Deban jaio zenetik bigarren mendeurrenean, berreugarren urtean gaude eta euskal-literaturaz eta euskeraren biziaz kezka eta ardurarik dutenek, ain zuzen ill onen ogeita seian, bera mundura etorri zeneko egun onetan, aren oroitza piztu eta ari omenaldi egin gabe ez dute gelditu nai izan.

Oraintsu sartu zaigun oitura au, gizon argi eta eredutzat artzekoen eunurteak ospatze au egoki eta onuragarri dalakoan nago. Bein izango da norbaiten jaiotza ospatzeko, beste bein alako edo olakoaren eriotzaren oroi-garri.

Jaun Jose Mogel onen eriotzaren urteurrena ospatu ez genduen ezker, betor orain beintzat aren jaiotzarena, eta ez bedi egun bateko oroitza utsetan gelditu. Egun bateko omenaldia aizeak eramango luke, utsa litzake.

Orain eun urte, jaio zanetik lenengoko eungarren urtean, ez zitzaion, nik dakidala, omenaldi izenekorik ezer egin. Ala ere, izenik gabeko, baiña izan aundiko omenaldia egin zitzaion. Urte-urren orren inguruan Mogel-ek idatzitako liburuak berriz argitaratu zituzten, bein eta berriz argitaratu ere batzuk, eta ez argitaratu bakarrik, bai zabaldu eta irakurri ere. Esaterako, *Eguneroko lan onak* luburuaren 5.000 ale argitaratu eta andik bigarren urterako, argitaldi osoa saldua eta agortua zegoen. Beste liburu bat, *Baserritar jakintsuaren* Eskolia G. Arrue, joan dan mende euskal-idalzerik ugarriena izan genduenak, Bizkaiko euskalkitik Gipuzkoakora itzulirik eman zigun. Urte-urren onen inguruak ikusi zuen, artean argitara gabea zen beste liburu baten argitaratzea ere. Orain eun urte Mogel-en izena eta Mogel-en euskal-lana Euskal-erriaren agotan eta euskaldunen eskuetan zebillen, bere bizian baiño ezagunago eta biziago. Izenik gabeko omenaldi ederra, benetan!

Gaur, bigarren mende-urrenean, urrik emango ote diogu orduko omenaldiari? Nola nai ere, gaurko omenaldi onek zerbait esan nai du, ez degula beintzat ahaztu nai euskal-literaturaren alorreko langille on eta saiatu au. Egun onetan neri egokitu zait Mogel onen euskal-lanen berri ematea eta aiei, labur bada ere, begiratu bat egitea. Neri ezarri didate egiteko au. Ez dakit zergatik. Bear bada, Markiñan izena naizelako, eta idazle onen lan batzuk, argi-

tara gabeak eta, an ikusi eta ezagutzeko aukera izan dedalako, zerbait berri esateko gaitzat artu naute. Nik baietza eman nuen eta emen nautze, emandako itzari erantzuten.

Eta asi nadin, Mogel-en egunetako giroari gain-begiratutxoa ematen. Juan Jose Mogel-i ez zitzaion, ez, egun gozo paketsuetan bizitzea egokitu. Irurogeita zortzi urte aietan, 1781-tik 1849-ra, zenbat gertakari bildurgarri, zenbat istillu eta zarraparra, zenbat arma-ots, zenbat gerrate, bai atzerritarrekin, eta bai anaiak anaien aurka! Mogel mutil koskorra dala, or etorri dira frantzesak Bizkaiko bazterretaraño. Eta laster pakeak egiñik, Frantziatik etorritako arma-gizonak alde egin badute ere, emen gelditu dira beste asko, apaiz eta beste, Frantziatik iges etorrita. Emen bizi dira ostatuz. Mogel zarrak, Peru Abarkaren egileak, eta Mogel gazteak badakite orren berri. Euskaldunak ziran asko, Mogeltarrentzat bestaldeko anaien euskera ezagutzeko aukera ona. Ordurik ona, bestaldeko euskal-deitura bat, Duralde, markinañar egiñik or daukagu bizi-bizirik gaurko egunetararte.

Mogel apaiz egin daneko, orra or berriz frantzesak, eraingoan leengoan baiño bildurgarriago. Berriz ere arma-otsa, zarraparrak, sei urteko egoera beltza, apaizentzako beltzagoa. ¡Egun aiettako egoera lazgarria naiko biziki jaso zuen orduko bertsolari kantari batek: “Frantzesaren mendean, / umil gaude emen, / ark Jesus dionean, / guk erantzun: amen”. Beti ez ziran, noski, Jesuska etortzen, eta erantzun gogorragorik eman bearko zitzaien.

Eta noizbaiten joan diranean, edo atzerritik etorriak atzerrira bota diranean, ez da bake onik sortu. Barruan dago gaitza. Cadiz-ko Konstituzioa dalakoak anaien arteko borroka berriei atea zabaldu die. Euskaldunentzat txarrena, eskualde guzientzako berdintasun-legea ezarri nai du. Agur, beraz, euskaldunen legeak, agur foruak. Eta erregeak, frantzesak alde egin berritan, Konstituzio ori kendu badu ere, foruak kendu-naia, euskaldunak legeko alper-arri beraren azpian zapaldu eta berdindu naia bein eta berriz azalduko da, bein eta berriz erakutsiko du burua. Ala Riego-k piztutako matxinada ondoren, ala gero Isabelarren eta karlostarren arteko gerratean, ala berriz Esparterok agintea artzen duenean.

Gertakari guztiok ez dira gelditu Mogeltarren biotzean aztarnarik utzi gabe. Bilbon, urtero, eguberrietan kantatzen ziran kanta berrietan, eta Markinan Cadizko Konstituzioa erretzeko ospatu ziran jaietako bertsoetan foruzaletasuna, foruai eutsi bearra bizi-bizi agertzen da. Eta kanta oietako batzuk Mogeltarrek sortuak dirala badakigu /. Bat, Vicenta Mogel emakumea da, eta ene ustez, aietako batzuetatik ez zebillen urruti Juan Jose bera.

Eta bertso aietan, sendo agertzen da euskaldunen gogoia.

Lenago ler egingo dozue guztijok,  
guri ezarri baiño zuoen buztarrijok.

Euskaldun gazte sendo, prestu ta nobliak,  
gorde gura ditubez asaben legiak...

Kinta ta miliziak lantzian ta sarri,  
ez deusku euskaldunoi lan txarra ezarri.

Agur, gure Foruak, agur noblezia,  
koldarturik balego emengo jentia...

Bizkaian ez da biar erbeste legerik,  
geure Foru maitiak nai doguz bakarrik,

Aldendu bitez, bada, gaiztuen asmuak  
eta gorde osoro Bizkaiko Forubak. (1)

Iñok gura badeusku Foruba lurpetu,  
guztiok biar geunke esan: gu gara gu!

Asko zoritxarrian badira emetu,  
Bizkaiak oraindiño gizonak baditu.

Bakia da guretzat doerik onena,  
baiña balego iñor gura eztabena,  
laster ikusiko dau buruban egurra,  
eta gordeko dogu geure olla-lurra. (2)

Mutillak orretako armatarara dira,  
zarrak bere nai leuke, gaztiak balira.

Katalan ta Naparrak, baita arabarrak,  
ditugu zorionez beti guretarrak. (3)

Bertsook aski bitez, orduko giroa erakusteko. Euskaldunak euskaldun iraun nai zuten, beren euskaldun legeekin, eta beren euskerarekin ere bai. Etsaiak euskal-gogoia piztuago egin du eta euskalgogoak euskalzaletasuna, euskera lantzeko bultzada indartsuago egin.

Larramendiz gero, euskaldunen euskalduntasuna berotzen asia genuen. "Euskalerraren adiskideak" ere su piska bat ezarri zioten berotzen asia zan giro orri. Mogel-ek urbildik ezagutu zuen Humboldt, eta aleman ori euskaldunen izkuntzaz ainbeste arduratzen ikusteak apaizgai gaztearen euskalzaletasun sendotu besterik ez zuen egin. Gero etxean zuen bere osaba, Mogel zaarra, euskera-maisurik onena eta zentzuzkoena. Zer geiago bear zuen euskalzale eta euskal-idazle ona ateratzeko? Gazterik galdu zuen, apaiz egin aurretik, osaba orren itzala, baiña ark ereindako aziak aleak emango ditu bere aldian.

---

(1) Constitucioeco Damiaren asmua zortzicuan (Ikus C.A.F. Mahn, Denkmäe der baskischen Sprache, Berlin, 1857).

(2) Gabonec Osaste edo Cantac Vizcaytarrentzat 1824 garren urtian.

(3) Constitucioeco Damiaren asmua...

Juan Jose ez da sartuko, bere osaba sartu zan bezela, jakintsuen ezeta-baidazko gaitetan. Ez, Mogel gaztea bere apaiztasunari, eta arimazaintzari lotuago agertuko da. Nork esan du, Eusebio Maria Azkueren bertsoetako Mogel, Mogel santua, Mogel zarra dala, *Peru Abarkaren* egilea dala? Nik uste, santu izena zeukana Juan Jose izan zala, eta ez bestea. Azkue orrek Mogel zaarra ez zuen ezagutu, Mogel bigarrena, zaarraren illoba, bai ezagutu zuen. Txaraka eskribauaa ere Juan Jose'ren egunetakoa zala entzun det nik Markiñan, Txaraka izeneko etxean bizi zana. Eta santu bezela, euskal-animen onari dagozkion liburuak idatziko ditu. Juan Jose onengan euskalzetasuna eta euskal animen ona billatu naia batera joango dira.

Eta gazterik aterako du bere lenengo liburua, 35 urte zituela, 1816garren urtean.

Bizkaiko euskalkiarentzat, urte au zorionezko urtea degu egiaz. Iru idazle agertzen dira bat batean plazara: Aita Bartolo, Markiñako karmeldarren nagusi zana, aita Pedro Astarloa, frantziskotarra, eta gure Mogel. Aita Bartolo bi liburuarekin dator, *Euskalerrietako dantzen gatzozpindua* eta bere *Ikasikizunen* lenengo tomoarekin; Aita Astarloak bere Berbaldien lenengo tomoa dakar, eta Mogel, Markiñako apaizak bere lenengo frutua, *Baserritar Nekezaleentzako Eskolia*, Bilbon, Pedro Apraizen molde azkijan ateratakoa. Idazle auekin azaltzen da lenengoz euskal-liberaturan sermolarrien tankera, Aita Bartolo eta Aita Astarloarekin, eta lenengoz nobela-tankerazko liburua, Mogel'en liburu ori. Eta esango al det geiago? Bai, nik esango nuke urte berean agertu zala, bearbada uskeritzat joko dan zertxo bat, uskerazko lenengo Egunaria, edo Egutegia, Okondoko seme ta Abandoko aberesendatzaille izan zan Ulibarrik antolatu eta euskeraz jarria, aurreko urtean idatzia, baina 1816garrenerako argitara emana eta zabaldua, noski.

Ez al da oroigarria gure literatura urritxoan bi edo iru bide berri urratu zituen urte ori? Ez da izan, noski, egun bateko lana. Ez; frantzesaren mendean ez ziran euskaldun guztiak egon frantzesak aginduai amen esaten; batzuk illunpean, ixillean lanean ziarduten, eta orra or orain argitara agertu.

Mogel'ena, orraitio, lotsaz bezela agertu da. Idazleak ez du argi osoan bere burua agertu nai, agi danez. Bere izena bost letra nagusien azpian gorde du: J. J. M.-M. C. (Juan Jose Mogel, Markiñako Kuria). Izen osoa ez du emango bigarren argitaraldirate. 1845garrean, Bigarren liburua, lenengoa eman eta laugarren urtean dakar; emen osoan estali du bere izena. Egillea *Bizkaiko nekezalien adiskide bat* da. Ageri agerian dago Mogel'ek baserria biotz-biotzean daramala. Lenengo liburua baserritar nekezaleentzat egiña du, eta bigarrena, nekezalien adiskide baten izenpean ateratakoa, Jose Basozabal'en sillutegian, 1820garren urtean. Bigarren liburu au Aita Zabala Frantziskotarrak euskera garbi jatorragoan egindakotzat zeukan. Ez dakigu zer akats aurkitzen zion praille orrek Mogelen lenengo liburuari, esan zuena esateko. Bi liburuok ez dira neurri batez neurtzekoak, batez ere gaiaren aldetik. Bear bada, egilleak bigarrenean gauzak zeatz, argiogo eta labur esateko ardu-

ra berezia erabili du, eta ala esaldiak argi eta beteagoak atera zaizkio. Gogozko otoitza egiteko, betiko egiak auznartzeko argibide eta gai laburrak naiko trinkoak ditu. Bertso saillik era badu, errosariokoak, kalbarioetakoak, dantza-zaleentzako eta abar. Orregatik edo, gozoagoa egiten zitzaion Aita Zabala'ri, bear bada. Baiña ez ote da izan beste zerbait aita Frantziskotar onek salatu nai izan duena? Mogel'ek leenengo idatzi zuen liburu artan euskal-aditzaren zuketa bakantxoia darabil; Zu eta oni dagozkion aditz-formak pluralean ere berdin erabiltzen ditu. Onetan aita Bartolo, Markiña-etxebarritarraren eskolakoa zala ageri du.

Ona eredu bat: “kristiñau esker deungakuak, nok egiñak zara? norenak dituzu daukazuzan bizitza ta izatia... Kristiñau zar egiazkuak: biztu zaite arren...” Bigarren argitara dian, azkenengo au “biztu zaiteze” egingo du. Nonbait olako zuketa formak, Bizkaiko bazter batzuetan bizirik zirauen oraindik. Aita Bartolo'ren liburuetan ala daude. Añibarro'ren liburuetan ez. Mogel'ek olako aditz-formei urrengo urteetan agur esan zien, ez zituen geiago erabili.

Iru garren liburu bat, liburutxo txikia atera zuen, ala diotenez, bere bizian, 1827garren urtean, liburu txikia, izenez luze samarra bada ere: “Ejertzio santua errezetako Kalbarioko estaziñoiak, Birjiña Santisisima angeruen Erregiñak irakatsi eutsena legez kristiñau fiel guztiai bere ejenpluagaz. Iru argitaraldi izan ditu, bi Mogel'en bizian, eta irugarrena lenengo mendeurrenaren inguruan. (4)

Iru liburuotatik mardulena, beteena, lenengoa du noski. Liburu onetan Joan Josek bere osaba Joan Antonioren ildoan sarturik dabillega erakusten du. Juan Antoniok, *Peru Abarka* liburuan, baserritar bat, *Peru* jarri zuen euskerarik jatorrenaren eredu eta maisu: “Catedrático de la Lengua Bascongada en la Universidad de Basarte”, tituluak dionez, eta gero erderazko itzaurre luze-samar batean argiago ikusten degunez.

Joan Josek osabaren bidea artu du. Baserrira joan da, eta baserritar bat egin, ez euskera jatorraren eredu eta maisu, kristau bizitzaren irakasle baizik. Baserritar bat irakasle, eta baserritarrak ikasle.

Baserritar ez ziranentzat ere balio bear zuen, noski; baiña Joan Josek baserritarrak izan ditu geienik gogoan, eta nekazarietzako eman du eskola ori. Zergatik nekazarietzako? Norbaitek uste izan dezake, idazleak baserri-

(4) “Ala diotenez” esan nuen. Baiña idazlantxo au Mogel'en zerrendatik kendu egin behar dalakoan nago. Ez du ageri Mogel'en euskeraren kutsurik edo antzik... Tituluan bertan ageri du ori. *Santuba* eta *ejenpluba* erabiliko zuen gure idazle onek. Mogel'ek erabili oi zuena baiño euskera baldarragoa du, gaiñera. Bestalde, titulu bera daramalla, beste Gurutzebide bat ere zabaldua izan zan *Olaetxearen* argitaraldi batean, Kardaberaz aitaren *Jesus, Maria ta Joseren Doboziotik* artua. Noiz sortu da lantxo au Mogel oni ezartzea? Askok jaso dute gero uste ori (Palau, Etxegarai, Jon Bilbao). Baiña ene ustez uste okerra da, ganorazko oiñarririk gabea.

tarrentzat bakarrik zeukala egokitzat euskera, baserritar ez ziranak ez zutela bear. Ez, Joan Jose'ren gogoan olako usterik ez da sortu. Berari entzun bear-ko diogu zergatik egin zuen orrela. Baserritarren maitez, baserritarrak Jainkoaren itza entzuteko aukera gutxiago zeukatela ikusi zuelako. Au jakiteko era ere kendu zaie lenbiziko argitaraldia irakurri ez dutenei. Urrengo edizioak lenbizikoaren itzaurrea, berba-aurrekoa edo aitzin-solasa kendu egin dute eta irakurleak egillearen leen-asmoa jakiteke utzi. An ikusten degu Juan Jose baserriatarrei itzik samurrenez mintzatzen, berba egiten: "Neure baserrijetako nekezale maitiak: Jangoikoak sorreratik legez zubekganako iratsi eustan etsigitasunak (atxikitasunak) txiki-txikitatik zaletu ninduban zubekaz artu-emon estubak eukitera. Izan dedilla zuen eta nire onerako". Ezin du onez ikusi baserritarrak baserritarrik ezestea, gutxi estea. Ez du baserritarrentzat esker txarreko izan nai besteasko izan diran bezala: "Euskalerriak ta baserritarrak euren emon deutseez jakitun andijak mundubari; baiña batzuk zabal-durik euren argijak bazter andi ta ugarijetara, esan lei bakarrik aaztu zirala eureen jaiterri ta berbeetakuakaz... Dakustana da, batez bere Bizkaitarren artian, banakaren bat ez izanik, osteruntzeko jakitunak ez dirala dendatu amaren ugatzeti ikasi ebeen berbete eder ta gozatsuban jatorrizko anaerik urkuenei liburuben bidez euren adin aberatsen ondasunak zabaltzen. Barriz, bat bakarrik ez dut aurkituten berariz baserrijetako nekezaleetara zuzenduten danik. Amodijo andiarentzat naibage andiko gomuntia".

Joan Josek bide ortatik jo du, berak lenengoz. "Norbaitek asi bear dau. Ezin ukatuko dabee nazala leleengua bakarrik ta berariz liburuban zubei berba egiten. Ez al naz azkenengua izango".

Badaki, ala ere, baserritar ez diranak izango dutela liburuan zer ikasi. Onela dio: "Ez diñot baserritaar ez diranak ez dabeela izango emen zer ikasirik, ezpada ez dodala berariz eurentzako berba egiten ...Nagijak ezpadira, kaletarrak dauke ere obia Jangoikuaren berba santuba sarrijago entzuteko bere ministruen agotik, ta nagijak badira, zetarako izango litzate nire liburu-ba?".

Liburua egitean, orraitio, keska bat etorri zaio burura, euskaldun askoren belarriak minberatuko ez ote diran liburuko itz arrotz eta naastekuak irakurrita. Naiko negargarri ikusten du euskeraren egoera, eta ala dio: "Euskeraren zaletasun eta eraspén puska bat daukeenak negar egiten dabee gaurko egunian ikusirik erri gitxi batzubetan bakarrik aurkituten dala berbeeta eder eta munduko jakitun guztiak zurtu biar dituben au, bere billostasun, ta soiltasun garbi, argi ta miragarrian. Beste erri askotan ez dago belarrik entzuteko zelako erdera mordolluakaz ezainduten dabeen euskal-berbeetia".

Onetan izan dute errurik, bai abade jaun askok, batetik, eta eskolak, bestetik. "Parkatu daideela Bizkaiko kura jaun askok, bada eurei ezarten deutseet onetan erru andija. Erdera, latin eta beste berbeeta asko ikasten ditubee txito ondo ta garbi, ta neke gitxi bat artu ezagaitik dagoz atzeratubak



euskeeran. Alan gero euren sermoe ta berbakuntzetan erakusten ditubee esakune erdaldunak”.

Eta eskolak? “Eskoletan erderia ikasteko leluak ez dau onetan kalterik gitxien ekarri. Euskeeria nastau, ta erderarik ikasi ez, au da eskolako umeetan beti ikusi dodana”.

Joan Josek zein bide artuko du euskerari dagokionez? Erdi-bidea. “Esan danetik ezagutuko da, zergaitik liburu onek urteten ez daben euskeera garbi-jaguan. Arimako ondasun ta mesediak billatzen ditut. Orretarako nai dot guztijak aitu naijeen”. Oraindik ez da euskera garbiagora jotzeko ordua etorri, baiña gerora euskerari etorkizun pozgarria ikusten dio. “Jangoikuari eskerak, egunoro urtengo dabee orain euskeerara zaletu eta ondo ikasteko gei ugarijak” ...Eta zaletuten bagara ondo euskeerara, erro zabalak botako ditu bazter guztijetara, ta orduban urtengo dabee liburu barri euskeriaren lora ta ondasunez betiak”.

Argi dagoela uste det: Mogel’ek ez die bere leen-lana nekazariei eskeini, gure izkuntza baserrikoa eta baserritarrentzat dalakotzat daukalako. Euskaldunen izkuntza izkuntza oso ta betetzat dauka, eta etorkizunik zoriontsuena opa eta ikusten dio. Euskal arimen onak eragiñik jarri da idazten, euskarentzat nai duen eta itxaroten duen etorkizun obeak eragiñik ere bai. Bego au argi.

Baiña goazen Nekezaleentzako Eskolia liburuaren mamia edo muiña geitxoago aztertzeraz. Egilleak iru eskualdi eman zizkion liburuari, eta lenen-gotik bigarrenera titulua ere zerbait aldatu egin zion. Baserritaar nekezaleentzako eskolia zana, bigarren edizioan *Baserritar jakitunaren etxeko eskolia* biurtu zan. Gaiñera ez da leenengoa berbera. Bigarrenean au gañerutzen dio: “Ateraten dau bigarren aldiz ta geigarri barrijakaz D. Juan Jose Mogel Marikiñako abadiak”, 1845.garren urtian, Bitorijan Manteliren alardun eta semien sillutokijan.

Azalean onelako aldakuntzak ezarri badizkio, barruan ez dizkio txikia-goak ezarri. Agiri danez, Mogel ez zan bein egindako lana ezin obetzat eukitzekoa. Urrengoan ikutu bat edo beste egin gabe ez zuen utziko. Orrela egin du 1816garreneko liburuarekin: emen kendu, or geitu, batean aldatu, bestean orraztu, liburu utsez zuzendurik eta berriturik gelditu da.

Irugarren orraztaldia ere egin zion, beste argitaraldi bat emateko asmotan, noski. Ez zuen argirik ikusi, baiña or gelditu da kopia berria, egillearen eskuz egiña, eta aldakuntza berriekin.

Liburu au Mogel’ek nobela antzean asmatu eta egin zuen, len ere esan dedanez. Gauza au ez det leenengoz nik aipatzen. Joan dan mendean, *Euskal-Erria* aldizkarian Baserritarren eskola au nobelatzen aipatua dago. Eta Mogel’en burutik alakotzat atera zan. “Jazoera irudituba” esaten dio berak ere. Jazoera iruditu bat, gertakari iruditu bat idatzi nai zan du, ikasbi-

dezko gertakaria, ori bai, guztiek, nekazari ta kaletar, zar eta gazte, guztiek eredu bat aurrean izan dezaten nola seme-alabak azi, nola okerbideetik alde egin eta eragin, nola bide zuzen eta garbiak maitatu eta artu ikasteko.

Mogel'ek bigarrean argitaraldian ezarri berba-aurrekoan ona nola azaltzen dan egillearen asmoa, mamiari dagokionez: "Emen, bada, azaldetan dira Doktriñako lau zati edo parteen gauzarik biarrenak, erakusten dira arrisku ta arimeen labanarriak, eurei aldendu ta birtute egijazkuei jarraituteko bidiak, eta guztirako aurkituko dira irudi edo ejenpluak".

Liburu onetan senar-emazte bi eta bost semealaba aurkitzen ditugu. Zazpion goraberak datoz, seme alaba bakoitzak bere bizimodua artu eta gurasoak iltzen diran arte. Eskola onetan ez da irakasten ez ikasten nekazaritzako lanik, baserria nola aurrera bidean jarri edo olakorik. Emen gizabidea, kristaau-bidea eta zerurako bidea ikasten dira, etxeko jauna maisu dala. Ez da bera eskolagabea. Osaba bat apaiza du, eta onen liburuetatik eta giñerako irakatsietatik, ez da nolanaiko jakintzaren jabe egin. Lenbizi bere emaztea eskolatzen du, eta gero, semealabak, banan banan, mundura etorri ala eta adiñean aurrera joan ala. Kapitulu bakoitzak bere sarreratxoa du, gaia aurkesteko. Bost seme-alabak or dabilta aitaren itzetatik zintzilikan, berak galde, aitak erantzun, kristau-bizitzarako bearren dituzten egiak eta legeak ikasten. Jaungoikoa gauza guztien egille, munduan ainbeste edergarri erein ditue-na gizonen onerako, gizona izadi osoaren jaun eta errege, Jaungoikoaren legea amar mandamentuetan ageri zaiguna, Kristoren Eliza eta sakramentuak. Bein elizako gauzak biziago azaltzeko, seme-alabak elizara eramaten ditu, eta an erakusten die, batik bat, bataioari, mezari eta konfesioari dago-kiona.

Munduko labanarriak, pekatuak arriskuak, jakiña, sail andia betetzen dute liburu onetan. Dantza, erromeria, jai, begira eta beste pekatuak arrizku jakiñak, bildurgarri jarriko ditu, leenengo argitaraldian, batez ere. Bigarrenerako naiko bigundu da etxeko jauna, eta Euskalerriko egoera ez du ain beltz ikusten. "Zorijonez, dio, ez dago onelako bigirarik erri askotan, ta dagozanetan bere, ez etxerik geienetan; leen ezagutu ditubeenak bere kendu ditubee". Itzok aitari entzunez, semeak (Luisek) onela dio: "Amaituko al dira euskalerrri garbijetan onelako pekatuben lazubak. Asko alegretan naz gitxitubaz duazalako". Baserriko lanik asko zearretara, pekatuak ekarri dezaketan arruiskuaren aldetik aipatzen dira emen: gorueta, arta-zuritze, ezpateta, gal-ebate, karobik olan, ira ebate, orbel batze eta abar.

Emen eta sermoi batzuetan Mogelek erakusten duen alderdi berria, bear bada gure literaturan lenengoz agertzen dana, zera da: Izadiaren, zerulurretako edergarriek eragiten dioten zoramena. Baserritar maisuaren agoari bein baiño geiagotan dario zoramena. Baserritarra zorionsuagotzat dauka, ain zuzen, zeru-lurretako ikuskizun ederretatik urrago bizi dalako. Nik ez dakit baserritarraren zoriontasun ori beti beti jatorra eta egiazkoa dan. Entzun dezagun, esaterako, bein Mogelek esan erazten dion au: "Baserritarrak dau-

kaz urren urren Jangoikuaren ontasun ta altsutasunaren gomuntagarririk bizijenak. Esnaatuten dabe gabian oillaren soiñubak, ganaduben orruak, ta Jangoikuak gizonarentzat egin dituban patarijen zaratak. Goiz jagirik, dakus eguzkijaren urteiera pozgarrija, estalduten ditubala illargi ta izarren argitasunak, entzunik bide batez txoritxubak euren soiñubakaz egunari emoten deutesen ongi etorrija, ta gizonari bere albistia”. Eguzkiaren goizeko irteera, txoritxuen txinta-soiñuak ez diot baserritarrarentzat pozgarri izango ez diranik. Baiña gabazko okulluko beien orruak, edo oillarraren kukurrukuak, patarien zaratak ere pozgarritzat artu?

Etxeko jaunaren, baserritar jakintsuaren azkenengo eskola bizimodua artu bearrari dagokiona da. Seme-alaben aurrean jarri ditu ezkontzako bizitza, ezkongabeena, apaiz eta mojena. Bakoitzak ar beza ongien dagokiona, iñork beartu gabe. Bostak artzen dute bakoitzak bere bidea. Luis apaiz izango da; Ageda, moja dijoa eta Ines'ek ezkongabe gelditza erabaki du; Xabier eta Sinforosak ezkontzabidea artzen dute.

Zoritxarrak, bata bestearen ondotik datoz etxeko jaunaren gaiñera, abereak gaixoak jota il, andrea ere galdu. Gizonaren sendotasuna erakusteko bere biziko aukera. Baserritarrak Jainkoaren eskuari muin emanik artzen du dana, Job'en itzekin: “Jainkoak emanak ditut, eta Jaunkoak kendu dizkit. Bedeinkatua bedi bera”.

Oneraiño iritxita, seme batek, Xabierrek artzen du liburuaren aria, aitarren azken-egunen berri emateko.

Irurogei ta lau urte ditu, ondasunen banaketa egin du eta ez dio beldurrik eriotzeari. Jainkoaren eskuetan dago, Badaki “arboliaren orriek jausten diran legez negu antzian, alan gizonak, banaka, biñaka, guztiok goazela lurre-ra”. Medikuek ibilteko agindu diote, eta, semea lagun, ibilli batzuk egiten ditu, leku ezagunetan zear, noizik bein basoarteko ermitatxo bateraiño, aspaldi batean parroki izandakora, antxinakoen ilobiak ikustera, biziaz, eriotzeaz, geroko biziaz gogoeta sakon itxaropenez betetakoetan murgildurik. Aita zarraren azken-ordua olaxe dator, arratsalde goibel bateko illunabarra bezela, negu-aurreko orri-erortearen antzera, ain ongi eskolatu dituen semealabetan jarraitzeko.

Mogel'ek ez zuen bete al izan liburu au irugarren aldiz argitaratzeko asmoa. Eriotzeak aurrea artu zion. Geroago iru eta laugarren aldiz argitaratua izan da. Eta Mogel'ek bere bizian nekez asmatuko zuena, gipuezkeraz ere agertu zan, Gregoio Arruek itzulirik, 1878garren urtean, Tolosan, Pedro Gurrutxagaren moldiztegian. Mogel'ek berak egindako bigarren argiaralditik itzulia dago.

Emen euskal-lanez ari naiz. Baina ez naiz geldituko zerbait esan gabe erderazko bi liburutxoez. Joan Jose onen izenean argitaratuak dira. Baina egilea Aita Bartolo dute. Leclusekin eta gero Iztuetarekin izandako eztabaida da bien ardatza, pluraleko Zuketa, len aipatu degun ori tartean dala. Eztabaida

au dala-ta, Bartolok eta Iztuetakor euskal-dantzen goraberan elkar jo zutela dionak, ez du auzi au ulertu. Aita Bartolo'ren irri ta farrak ez dira or Iztuetarentzat, Lecluse'rentzat baizik. Zuketari buruz Lecluse ez zan nor, iñori maisukeriaz mintzatzeko, gutxiago Aita Bartolo-ri eta Mogel'i. Pluraleko Zuketa singularrera noiz aldatu zan iñork ez du gaur arteño argitu. Ezagutzen degun euskal-literatura guztian bizirik aurkitzen degu. Ala, amalau-amabosgarren mendetako kanta zaarretan, ala Leizarraga eta Etxepare eta idazlerik zaarretan.

Zuketa zaarraren aztarna bat gelditu da, ain zuzen, Aita Bartolo'ren eta Joan Jose onen euskeran. Nola auei Lecluse'ek edo beste iñork ezer irakatsi gai onetan?

Sartu gaitezen orain, Mogel'ek argitara gabe utzitako euskal-lanetan.

Zer utzi zuen, bada, argitaratu gabe? Bat, beintzat, Maiatz-illerako Berbaldijak, Tolosan, 1885garren urtean Eusebio Lepez'ek argitaratuko zituenak. Lan ori prestatu zuenean, Mogel'ek ez zuen bear bada argitara emateko asmorik izan. Il-aurretxoan burututako lana du; zenbait itzaldi 1846 eta 1847n izenpetuak daude. Markiñako Merzedeko elizan utzi zituen, maiatzeko loretan edozeinek irakurri al zitzan. Maiatz illerako berariz egiñik gutxi dago. Geienak badirudi salbazioko gaietaz egiñik zeuzkan beste itzaldi batzuetatik atera zituela, azkenean Ama Birjiñari zuzendutako otoiz bat erantsita. Argitaratu zituenak bazekien ori, eta ala adierazi zuen argitara baiño urte bete lenagotik, alegia, maiatzerakotzat egon arren, itzaldi aiek oiñarrizko kristauegia asko ikutzen zutela eta edozein alditako balio andikoak zirala. Zoritxarrez, akats eta uts askoz beterik atera zan liburua, eta badu utzen zerrenda bat erantsi bearra.

Liburu oni dagokiola, Vinson'ek Euskal-bibliografian naastea sortu du. Ez zigun esan, bada, bizkaieraz agertu baiño lenago, gipuzkerazko edizio bat egin zala, edo *Itzaldiak* izeneko bat, beintzat? Etxegaraik, Villasantek eta Jon Bilbaok ari sifiñistu diote eta aren okerra berritu. Emen Vinson'ek oker-adituen bat izan zuen. Eusebio Lopez'ek, Bizkaiko klasiko baten liburu au agertzeko iragartzen zuenean, urte bete lenagotik Itzaldiak tituluaz gaztigatzen zuen, gero egiaz Berbaldiak tituluaz agertu zana. Ortik bi liburu egin dituzte, bata, gipuzkeraz zegoelakoa, eta bestea, bizkaikoa. Vinson'ek ongi ageri du ez zuela gipuzkerazkoa zalako orren alerik ikusi, ez du berak oi zituen xeetasunik ematen, ez zer neurrikoa dan ez zenbat orrialde dituen. Eta aren ondoren etorri diranak oker berean erori dira.

Baiña berbaldirik, sermoerik geiago ere utzi zigun Mogel'ek. Onelako batzuen berri emanez amaituko det nere itzaldia. Sermolari ona zalako ospea izan zuela badakigu. Eta ba omen zekien sermoiak idatzi eta beste apaiz lagunei ematen ere. Zenbat eliz-itzaldi ez ote dabil bazterretan, arek orrela zabaldurik? Markiñako parrokiak mordo on bat gordetzen du, doctriñaren zati batzuek azaltzekoak, zenbait, Jesusen Biotzaren elizkizunetarakoak, eta beste asko. Guztiz irurogei inguru.

Itzaldi auetan Kardaberaz'en eragiña ikusten zaio. Kardaberaz Aitak badakigu nolako lanak erabili zituen apaizekin, euskera jatorragoa eta ego-kiagoa erabiltzen ikas zezaten... Badakigu ere Jesusen Biotzaren anaiarteak, kofradiak leku askotan zabaldu zituela. Markiñan ere bai. Juan Jose Kardaberaz'en jarraitzaille degu. Kardaberaz'ek bezela, Mogel'ek ere apaiz-lagunei lagundu nai zien euskerazko sermoiak obeto egiten. Eta zintzo eutsi zion Markiñan Jesusen Biotzaren anaiarteari, arauetan zituzten eginbera zeatz beteaz.

Illero egin bear ziran Jesusen Biotzaren eleizkizunok, apaiz bat zuzendari zutela. Apaizaren eginbearra zan, beste irakurraldiez ez gaiñera, gutxienez ordu laurdeneko itzaldia egitea. Orrelako itzaldiak, Jesusen Biotzaren elizkizunetarako egiñak, ia guztiak Mogel'ek idatziak 45 bat gordetzen dira Markiñako parrokian. Maitaz-illerakoak bezela, auek ere Mogel'ek apaizen eskue-tan utzi zituen. Bat kendu ezker, 1778garren urtekoa, besteak Joan Jose'n egunetakoak dira. Bakoitzak esaten du noiz eta zenbat aldiz esanak izan diran. Batzuk Mogel il eta urteak geroago ere bai.

Orra Joan Jose Mogel onen euskal-lana, Euskalerrarentzat, Euskal nekazari eta kaletarrentzat eta euskal-apaizentzat eten gabe egiña. Euskeraz idaztea ez zuen bere bizian utzi. Bizi onetatik eraman zuen azkenengo gaitzak ere idazten ikusi zuen, gauza barriak osatuz, edo len egiñak orraztuz. Euskal-erria eta euskera zor aunditan daude gizon onekin.

Lan au prestatzen ari naizela, egunkarien batean Gaztelako izkuntzaren akademiko baten itzok irakurri ditut, Gaztelako izkuntzari, erderari buruz: "El castellano no lo ha hecho la Real Academia, ni la Gramática de tal o cual. Se ha perfeccionado en la iglesia, y en el teatro, mediante sermones, comedias, con novelas populares y romances".

Tankera eta mailla orretakoa izan da Mogel'ek euskeraren arloan egin duena. Euskerari eusteko eta aurrerabidean jartzeko, sail bat baiño geiago lantzen saiatu da: sermoi, bertso, jazoera iruditu edo nobela. Elizan eta elizatik kanpo, baserrirako eta kalerako, euskaldun guztientzat lan egin du.

Eta Euskalerriak, batez ere Bizkaiak, orain eun urte, jaio zaneko leenengo mendeurrenean, esker onezko erantzunik ederrena eman zion, aren liburuak zabalduz eta irakurritz. Omenaldi ixilla, arrandirik gabekoa, baiña egiazkoa. Eta ona orain nere galdera: Aurtengo omenaldia, bigarren mendeurren onetakoa oroimen otz eta utsean geldituko ote da? Mogel'ek eta euskerak orain eun urte baiño irakurle gutxiago izan bear ote du? Euskalerriak eta euskaldunok eman bearko degu erantzuna.



## JUAN JOSE MOGEL-EN OMENALDIA

*Deba-n, 1981, Apirilak 26*

*Fr. Luis Villasante*

### **Euskaltzainburuaren hitzak**

D. Xabier Aizarna, Gipuzkoako Diputazioko buru  
Rafael Rodriguez, Debako alkate bigarrena  
Jaun-Andreak: egun on!

1781. urtean, Apirilaren 26an, hemen, Deba-n, jaio zen Juan Jose Mogel apaiza, euskal idazlea. Beraz, gaur justu betetzen dira berrehun urte.

Euskal literaturan burutu zuen lanarengatik Euskaltzaindiak omenaldi hau eskeini nahi izan dio hemen, bere jaioterrian.

Haren bizitzeaz eta haren idazlanez hizlari bana izan dugularik, ni ez naiz kontu horietan sartuko. Inoren barrutian sartzea izango litzateke, eta gaiok lardaskatu edo lorrindu baizik ez nuke egingo.

Gaur hizpide ematen duen auzi bati oratu nahi diot gaingiroki eta azaletik baino izango ez bada ere. Gainera, uste dut baduela gaurko ospakizunaz zer-ikusari.

Euskaltzaindiari maiz aurpegira botatzen zaio euskalkien kontra dagoela euskara batuaren alde dagoelako. Baina, ikusten duzuen bezala, berak ez du biguini edozein euskalkitan idatzi duenari omenaldi egiteko. Ez horixe. Ekai-nean zuberotarrez idatzi zuen Archu idazleari egingo dio omenaldia, gaur bizkaieraz idatzi zuen honi egiten dion bezalaxe.

Juan Jose Mogelek, guztiz oker ez banago, bizkaieraz egin zituen bere euskal idazti guztiak. Egia da hemen, Deba-n, J. J. Mogelen jaioterrian, ez dela euskalki hau egiten, baina hark ia bere bizitze guztia Bizkaian igaro zuen, eta hango euskalkia berea bezala har zezakeen.

Dena dela, eta lehengora joaz, Euskaltzaindiak ez du sekulan esan euskalkiak ez direla landu behar edo baztertu egin behar direla. Zerbait esan duenean beste aldera esan du, hain zuzen, eta behin baino gehiagotan, gainera.

Euskaltzaindiak ikusten du batu antzeko euskara molde bat behar duela euskarak, etorkizunean bizirik aterako bada. Batu antzeko euskara molde bat irakaskuntzan, administrazioan eta idatzizko zenbait zereginetan erabiltzeko. Baina euskalkientzat eta tokian tokiko hizkerentzat beti geldituko da tokia franko.

Beraz, euskara batuaren alde egoteak ez du esan nahi euskalkien alde ez egotea. Jesusek behiala esana errepika daiteke hemen: “Egiten dituzuen horiek egin behar ziren, ez ordea besteak utzi” (Mt 23,23).

Euskaltzaindiak badu ikuskera bat guztiz argia eta ongi zehaztua arazo honi buruz. Gainera, oraindik denbora asko ez dela, Agiri bat eman zuen hortaz (Ikus *Euskera* (1979), 103). Bertan espreski esaten da Euskaltzaindiak nahi duela euskalkiak eta tokian tokiko euskal hizkerak iker daitezen, eta bai lant daitezen ere.

Lantze hori behar den bidetik joan dadin, ordea —hots, onerako, eta ez kalterako, izan dadin—, bi baldintza bete behar direla gogoratzen du: 1) Hizkuntzaren ortografia orokorra gordetzea, eta 2) Euskararen azpiegitura edo oinarri batuari kasu egitea. Bestela, elkarrengandik urruntzen eta barreiatzen ibiltzeko arriskua dugu, eta horrek, jakina, ez gaitu inora eramango, heriotzera baizik.

Begien bistakoa da euskalkien lantzea ez dela nolnahi egin behar euskararen onerako izango baldin bada. Euskara hizkuntza bat da, eta ez hizkuntza asko (Aita Larramendik bestela bazioen ere). Beraz, kaltegarri oso izango litzateke hizkuntzaren barnean ortografia desberdinak erabiltzea. Ortografia bakarra behar da hizkuntza osorako, eta bat hori da Euskaltzaindiak onartua eta erabakia duena. Horren kontra joatea euskararen kontra joatea dela esan behar da argi eta garbi.

Beste baldintza da hizkuntzaren azpiegitura edo euskararen oinarri batua kontutan hartzea; beste hitzez esanik, bat egiten dugunetan batasuna mantentzea, eta ez apurtzea. Ardura hau edukitzea ere beharrezko dela, edozeinek ikus lezake.

Esate baterako, bizkaierazko aditzean, herriak erabiltzen duen aditzean, alegia, bi forma hauek ezagutzen dira: *dauz* eta *ditu*. Zergatik hartu beste euskalkietatik urruntzen gaituena eta ez horiekin bat egiten gaituena, biak etxean ditugularik?

Beste adibide bat —hau gipuzkoarrentzat—. Hitzen bukaerako “a” organikoa galtzeko joera nabari da euskalki honetan, beste euskalkiek lege hori hobekiago gordetzen dutelarik. Orotasunari kasu eginez, zergatik arreta pika bat ez jarri *a* organikoaren lege hori zaintzen? Zergatik ez esan *gauza bat*, *gauzarik*, eta ez *gauz bat*, *gauzik*, eta abar?

Honelako txikikeria asko aipa daitezke. Txikikeriak dira, nahi baduzue, baina txikikeria horiek gordetzetik dator —besteak beste—, hizkuntza baten osasuna.



Edozein modutan ere, salbuespen hauekin eta baldintza hauek beteaz, Euskaltzaindiak nahi du euskalkiak gordetzea, aztertzea eta bai lantzea ere.

Euskaltzaindiak nahi du, gainera, tokian tokiko euskal hizkera berezien bilketak, azterketak, ikerketak eta abar bultzatu. Hain zuzen, horrelako azterketak taxuz egiteko, gaur oinarrizko prestaera bat behar dela ikusirik, sail horretan langile berriak eta ongi hornituak sortarazi nahiz, antolatu du hemen Deba-n, egun hauetan ospatu den Ikastaroa. Eta Ikastarora irakasle jaun espezializatuak ekarri ditu, baita kanpotik ere.

Ostolaza patronatoan egin da Ikastaroa. 8 irakasle eta 27 ikasle izan dira guztira. Irakasleak, gai hauetan espezialista direnak: Ana Mari Etxaide, Veny i Clar, MacMurrough, Karmele Rotaetxe, Rafel, Allières, Cerdá eta Mitxelena jaun-andreak. Ikasleak ere ez nolana hikoak, Filologian ikasiak edo oinarrituak direnak baizik.

Ikastaro honek hasiera edo abiapuntu bat izan nahi du: langile berriak eta ongi prestatuak sortu nahi ditu, alegia, herri hizkeraren ikerketak bultzatzeko.

Ikastaro honek badu, gainera, beste helburu jakin bat. Esan ditugunetan nolabait sarturik badago ere, aipamen berezi bat egitea merezi duela uste dut: *Euskararen Atlas*a. Horra asmo handi bat, orain arte oratu ez zaiona, baina Euskaltzaindiak ahazturik ez daukana. Honelako lan bat aurrera eramateko, ordea, bi gauza behar dira: bat, langile trebe, ongi oinarrituak eta prestatuak, eta behar diren tresnez hornituak; eta bi, kostuei aurpegi emateko behar diren laguntzak izatea. Eragozpenok gora-behera, uste dugu helburu honi ere heldu ahal izango diola Euskaltzaindiak, asko luzatu gabe, gainera.

\* \* \*

Con este acto se clausura también el Cursillo de Dialectología, que ha tenido lugar estos días en esta villa de Deva en conexión con la conmemoración del bicentenario de D. Juan José Mogel.

Creo que se puede afirmar que el balance del dicho Cursillo ha sido altamente positivo. Se ha palpado un ambiente de compenetración entrañable entre profesores y alumnos. Todos hemos quedado muy gratamente impresionados por la altura y calidad, a la vez que por la claridad y asequibilidad de las doctas lecciones de los profesores. Quiero testimoniarles nuestro más vivo agradecimiento, tanto el de la Academia como el de los alumnos. A más de uno de los participantes le he oído decir, al comprobar la seriedad con que se realizan estos estudios en el dominio del catalán, que ellos nos llevan cien años de adelanto en este campo de la dialectología.

De todos modos, creemos que el Cursillo servirá para que también entre nosotros los estudios dialectológicos reciban un nuevo impulso.

También quiero expresar mi satisfacción por el interés y asiduidad con que los alumnos han participado en el curso. Creo que todos han quedado

altamente satisfechos. No deja de ser un gran motivo de esperanza el ver que hoy cuenta el país, por primera vez, con un plantel de investigadores en ciernes, de los que podemos prometernos mucho.

Gracias también, muy especialmente, a la villa de Deva, a su Ayuntamiento y pueblo, y de modo muy particular a la fundación Ostolaza, que tan desinteresadamente nos ha brindado los locales.

Eskerrik asko bihotzez, eta guztia euskararen onerako izan dadila! Gaur Euskal Herrian diren Unibertsitateei esker, baditugu Filologi alorrea ikasiak diren gazteak. Horientzat izan da batez ere ikastaroa. Hurbildik ikusi ahal izan dugu zeinen gogotik parte hartu duten Ikastaroan. Guztiz pozgarri da ikerketa hauetarako langile trebe eta ongi prestatuak izateko bidean garela jakitea. Izango ahal da Ikastaro hau herri hizkuntzaren azterketak bultzatzeko urrats bat! Hala izan dadila. Bonaparte Printzeak, Azkuek, eta lehenago Larramendik, Mogeldarrek eta bestek idikitako ildoak izan dezala segida, eta bai loratze berria ere!